

Leioanet XXI: hiri digitala

Leioako Udala



Proiektu honen helburu nagusia informazioaren eta ezagutzaren gizartea garatzea da eta, horretarako, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak (IKTak) herri-administrazioari eta horrek udalerriko sare sozioekonomikoa osatzen duten herritar, enpresa, elkarte, prestakuntza-zentro eta abarri eskainitako zerbitzuei zabaltzea.

Zehatz-mehatz esanda, proiektu honek IKTen bitartez hiru jomugara iritsi nahi du: e-administrazioa finkatzea eta herritarrek sarean "herritarren atariaren" bitartez udalekin ohiko gestioak egitea; "ETeen atariaren" bitartez enpresa-zerbitzuak eskainiz udalerraren lehiakortasuna garatzea; eta, azkenik, herritarrek partaidetza handiagoa izatea, herritarren artean Interneten erabilera sustatzeari esker.

Una manera de hacer Europa
Fondo Europeo de Desarrollo Regional



EGEFekin batera finantzaturako eragiketa honen esparruan jardura desberdinak garatu dira, besteak beste, ondorengoak: wifi zonak ezartzea; udalerriko puntu desberdinetan informazio-pantaila digitalak instalatzea, horietako batzuk elkarreragileak gainera (panel berriek kultur informazioa, trafiko-oharrak, zergetarako epeak, prestakuntza-ikastaroak, deialdiak, etab. adierazten dituzte); mugikor eta tauletarako doako aplikazioa garatzea, udal-zerbitzuak biztanleriari hurbiltzeko; ikusmen mugatua duten pertsonentzat Udalaren web orria moldatzea; eta hiru atari berri sortzea (wifi konexioaren web ataria, Leioako Behargintzaren ataria eta kiroletarako web ataria).

Una manera de hacer Europa
Fondo Europeo de Desarrollo Regional

